

Udal Kirol Zerbitzuko araudia berritzeko aurretzako kontsulta

2018. urtean adierazi genuen bezala, 2011n onartutako Kirol Zerbitzuko araudia berritzeko, 2019. urtean prozedura martxan jartzeko aurretzako kontsulta egin beharra dago eta Tokiko Gobernu Batzordera bideratu.

UDAL KIROL ZERBITZUKO ERREGELAMENDUA

Aurretzako kontsulta

1. EKIMENAREKIN ZER ARAZO KONPONDU NAHI DIRA?
2. ARAUDIA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA
3. ARAUAREN HELBURUAK
4. ARAUDI BIDEZKO ETA ARAUDIZ BESTEKO ZER BESTE IRTENBIDE IZAN DAITEZKEEN

2011ko maiatzaren 30ean Udal Osoko Bilkurak onartu zuen Begarako Udal Kirol Zerbitzuko Araudia. 2011ko irailaren 14an, GAO-n argitaratu zen. 2018an urtean zehar egindako hausnarketan pentsatu dugu une egokia dela arautegia berritzeko.

1. EKIMENAREKIN ZER ARAZO KONPONDU NAHI DIRA?
Igarotako urte hauetan jabetu gara, arautegia zahartuta geratu dela eta ez digula tresnarik eskaintzen gaur egun bizi ditugun hainbat egoerei aurre egiteko.

Kirol ekintza eta instalazioen garapenarekin bat datorren arautegia prestatu nahi dugu.

2. ARAUDIA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA
Agorrosinen urtean zehar 300.000 pertsona inguru sartzen dira; Labegaraietan eta Udal Pilotalekuan ere erabilera ugari ditugu egunero. Elkarbizitza bermatzeko ezinbestekoa dugu araudi eguneratu eta eraginkorra.

3. ARAUAREN HELBURUAK
 - Erabiltzaileei zerbitzu egokia eskaintzea
 - Erabiltzaileen arteko elkarbizitza bermatzea
 - Instalazioen erabilera egokia bilatzea
 - Batzuen eta besteen eskubide eta betebeharrak zehaztea
 - Diziplina erregimena arautzea
 - ...

4. ARAUDI BIDEZKO ETA ARAUDIZ BESTEKO ZER BESTE IRTENBIDE IZAN DAITEZKEEN
Guk ez dugu araudi egokia ez den beste aukerarik ikusten.